


2016ko uztailan industriako prezioek %0,1 egin dute gora aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearen aldean (2016ko uztaila 2015ekoaren aldean) %3,2 jaitsi

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko industri prezioak %0,1 gehitu ziren 2016ko uztailan aurreko hilaren aldean. Datu horiek kontuan, uztailako urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industriako prezioek izandako aldakuntza) %3,2 jaitsi da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)



Sektorekako azterketa xeheagoak agerian uzten du, 2016ko uztailan, Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta aire egokitua (%3,9), Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa (%1,5) adarrekin gehitu zituztela gehien prezioak aurreko hilaren aldean. Jaitsierarik handienak prezioetan: Kautxu, plastikoa eta ez-metalezko beste produktuak (%-2,8), Kokeriak eta petrolio fintzea (%-2,3), Erauzketa industriak (%-0,9).

2016ko uztailan, 2015ekoaren aldean, prezio-hazkunderik handienak: Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa (%2,7), Produktu farmazeutikoen fabrikazioa (%2,3), Elikadura industria, edariak eta tabakoa (%1,4). Jaitsierak: Kokeriak eta petrolio fintzea (%-18,3), Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta aire egokitua (%-3,6), Metalurgia eta metalezko produktuak (%-3,3).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, uztailean, sektore-talde handien prezioek gora egin dute, Bitarteko ondasunetan (%-0,6) izan ezik. Energiaren prezioak %1,3 gehitu; Ekipo-ondasunenak %0,2; Kontsumo-ondasunenak %0,1; azken hauen barruan, ez-iraunkorrenak %0,1 gehitu, iraunkorrenak %0,0.

Urte artean: Energiaren prezioak %-12,0, Bitarteko ondasunenak %-2,6. Ekipo ondasunen prezioak %1,2 gehitu; Kontsumo-ondasunen prezioak guztira %0,6. Azken horien barruan, iraunkorren prezioak %-0,6; ez-iraunkorrenak %+1,0.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2016ko Uztaila

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2016uzt / 2016eka	2016uzt / 2015uzt	2016uzt / 2015abe
INDIZE OROKORRA	103,3	0,1	-3,2	-0,8
Sektore-banaketa				
Ateratze-industriak	90,6	-0,9	-2,9	-2,9
Manufaktura-industria	100,5	-0,5	-3,2	-0,4
Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	124,9	3,9	-3,6	-3,4
Industria-sektore handien arabera				
Kontsumo-ondasunak	104,7	0,1	0,6	0,5
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	99,3	0,0	-0,6	-0,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	106,6	0,1	1,0	0,7
Ekipo-ondasunak	105,2	0,2	1,2	1,1
Bitarteko ondasunak	101,5	-0,6	-2,6	-0,8
Energia	99,4	1,3	-12,0	-3,5

Oinarria 2010=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Informazio gehiago.

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62

Euskal AEko Industri Prezioen Indizeari (IPRI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industri Prezioen Indizearen (IPRI) datu-bankua